

68. FITXA 2025eko ekitaldia arte eszenikoak sustatzeko programetarako dirulaguntzak

Nori zuzendua: EAEko Udalak (IV. Kapitulua).

Sarbide-esteka: [2025eko ekitaldia arte eszenikoak sustatzeko programetarako dirulaguntzak Arte eszenikoen kaleko erakustaldietarako programak \(2025\) - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2024ko abenduaren 3koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzak emateko araubidea arautzen eta iragartzen baita arte eszenikoak sustatzeko programetarako, 2025eko eko ekitaldian.](#)

Eremuak: Kultura

Zenbatekoa: 255.000 € (IV. Kapitulua)

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/01/31

Laburpena

IV. kapituluan aurreikusitako laguntzak EAEko udalei zuzenduta daude, **2025. urtean zehar Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten konpainiek aire zabaleko espazio publikoetan arte eszenikoak (antzerkia, dantza eta zirkua) erakusteko programak** garatzeko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Betekizun hauek dituzte erakustaldi-programa horiek:

- a) Biztanle-tarte bakoitzerako ezarritako gutxieneko antzerki-, dantza- edo zirku-ikuskizunak programatuko dira:
 - o 20.000 biztanletik gorako herrietan: bost ikuskizun.
 - o 20.000 eta 10.001 biztanle arteko herrietan: lau ikuskizun.
 - o 10.000 eta 5.001 biztanle arteko herrietan: hiru ikuskizun.
 - o 5.000 eta 1.001 biztanle arteko herrietan: bi ikuskizun.
 - o 1.000 biztanletik beherako herrietan: ikuskizun bat.
- b) Diruz lagunduko diren ikuskizunak bizilekua edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan

дутен konpainia profesionalak antzeztuko dituzte. Biztanle-tarteen arabera eskatzen den gutxieneko ikuskizun-kopurua betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko konpainien ikuskizun bakar bat ere hartu ahal izango da kontuan.

- c) Berariaz aire zabaleko espazio publikoetan erakusteko diseinatu diren ikuskizunak bakarrik sartuko dira.
- d) Ezin izango da sarrerarik kobratu ikuskizunak ikusi ahal izateko.
- e) Jaietan programaturako bi ikuskizun ere sartu ahal izango dira gehienez.

Hauek geratuko dira kanpoan:

- a) Tradiziozko ekitaldiei lotutako emanaldiak.
- b) Beste herri batzuetan antzezteko moduko diseinua ez duten ekoizpenak.
- c) Soilik musikalak diren emanaldiak.

Erakunde onuradun izateko betekizunak.

- a) Antzezleku egokiak, seinaleztatuak eta mugatuak izatea, indarrean dagoen legediak eskatzen dituen segurtasun-neurri guztiak betetzen dituztenak; erantzukizun zibileko aseguru bat izatea programatzen diren ikuskizunetarako, eta lokal egokiak izatea kamerino eta aldagela gisa erabiltzeko.
- b) Programaren alderdi tekniko guztiak koordinatuko dituen arduradun bat izatea.

Gastuetarako aldi hautagarria

2025eko ekitaldian zehar egiten diren jarduerak.

Laguntzen zenbatekoa

Emanaldi bakoitzari dagozkion dirulaguntzak aurkeztutako ikuskizunen ordainsariaren arabera (BEZa barne) kalkulatu dira. Ordainsari gisa ulertuko da kontratatutako alderdiak bere jarduketagatik jasotzen duen kontraprestazio ekonomikoa.

Katxearen % 40 lagunduko da diruz (% 45 ikuskizuna euskaraz bada).

Nolanahi ere, ez dira muga hauek gaindituko:

- a) Ikuskizun bakoitzeko dirulaguntza inoiz ez da izango 3.000 eurotik gorakoa (3.200 € ikuskizuna euskaraz bada).
- b) Erakunde onuradun bakoitzari gehienez 10.000 € emango zaizkio.
- c) Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioarekin emanaldi bat baino gehiago egiten badira ikuskizun berean, euskarazko bertsioa baino ez da diruz lagunduko.